

**NAFARROAKO INKESTA.** Parlamentuak eta Gobernuak zein buruzagi politikoek ez dute herritarren onspena jaso

# Erakundeek eta politikariek porrot nabarmena jaso dute galdeketan

CIESekin eginiko inkestan, UPN eta PSN igo egingen lirateke botoetan, eta Batasuna jaitsi

Irene Arrizurieta | IRUÑEA

Nafarroako erakundeek eta buruzagi politikoek balorazio txarra jaso dute, Foru Erkidegoari buruz Parlamentuak CIES etxeri eskatutako inkestan. Politikari guztiek, Parlamentuak eta Gobernuak suspentsoa jaso dute. CIESen inkesta 18 urtez goitiko 455.000 nafarren artean 1.300 laguni egin zaie, zuzeneko itaunketaren bidez. Galdeketan ez zen euskaraz egin.

Inkesta horren arabera, nafarrek gehien kezkatzen dituen arazoa «ETAren terrorismoa» da (%62), eta gutxien elikagaien segurtasuna (%1).

Nafarroako erakundeek eta politikariek jarduerak porrot egin du, inork ez duelako hamar puntuko balorazioan bost punturik lortu. Hala, herritarren %36k diote Gobernuaren jarduna erdi mailakoa dela, eta %20k txarra edo oso txarra. Ildo berean, Legebiltzarraren lana erdi mailakoa da (%38), edo txarra (%17). Justiziaren funtzionamendua ere gaizki ikusia dago, 4.1 puntu lortu ditu-eta.

Politikariei dagokionez, Juan Cruz Alli (CDN) da hobekien baloratua, eta gaizkien ikusia Fernando Barrena (Batasuna).

Boto intentzioari erreparatu, UPNk eta PSNk jarleku bana edo bina irabaziko lituzkete hauteskundeak orain egingen balira. Aldiz, Batasuna zortzi jarleku izatetik laura iraganen litzateke, eta eratu berria den Aralarrek bi eserleku bereganatuko lituzke. Batzarrek ez luke eserlekurik lortuko. Era berean, IU-EBk eta EA-EAJk orain arteko hiru eserlekuak mantenduko lituzkete, CDNk bat galduko luke, eta Batzarrek duen bakarra ez luke berreskuratuko.

Ingurumari honetan, Nafarroan zein gobernu nahi duten itaunduta, %24k ez du iritzirik eman; %21ek PSN-IUN-CDN-EA-EAJ koalizioaren alde egin dute; aldiz, %19 azaldu dira UPNk bakarrik gobernatzearen alde; eta erregionalisten eta PSNren koalizioa %13k sostengatu du.

## ERAKAZKIOAK

**ALBERTO CATALAN** (UPN)

«UPNk egindako politika berretsi du, eta PSN ez dela gobernu alternatiba adierazi»

**JORGE MORI** (PSN)

«Joera aldaketa ikusten da eta argia da PSN errotu egin dela»

**PERNANDO BARRENA** (Batasuna)

«Benetako datuak hauteskundeetan ikusten dira. Ez da politika fikzioa egin behar»

**JUAN CRUZ ALLI** (CDN)

«Garrantzitsuena ez da orain ematen dizuten boto kopurua, bi urte barrukoa baizik»

**FELIX TABERNA** (NEB-IUN)

«Nafarroan botoemaile egonkorra izateaz gain, esparru politikoa dugula adierazten du»

**JOSE MARIA AIERDI** (EA)

«Ona da nafarren gehiengoak koalizio gobernuaren alde egin izana»

**PATXI ZABALETA** (Aralar)


«Alternatiba bezala errotzeko, lanean jarraitzeko itxaropena eskaintzen du»

## CIESen inkesta Nafarroan


### Botoak

	1999		2001	
	%	Eser.	%	Eser.
UPN	42,4	22	44,2	23-24
PSN	20	11	24	12-13
Batasuna	15,9	8	8,1	4
Ezker Batua	7	3	6,6	3
CDN	7	3	5,4	2
EA-EAJ	5,6	3	6,4	3
Aralar	-	-	3,8	2
Batzarre	-	-	1,2	0
Alderdi Karlista	-	-	0,3	0

### Nortasuna




### Politikarien balorazioa (1etik 10era)



### Nafarroarentzat gehien nahi duten egoera



### Nafarroako Gobernuaren jardueraren balorazioa



## ZENTROKO JOERA

Herritarren %26 zentroan kokatzen da, %24 ezkerrean, eta %15 bakarrik zentro-eskuin edo eskuinean

Azpimarratzekoa da herritarren %54k nahiago duela koalizio gobernu bat boterean, eta %26k gehiago osoa duen baten alde egiten duela. Alta, egungo egoera —UPN gutxien goan— %13k bakarrik onartzen du. Orobat, %54 dago nolabait teko koalizio gobernu baten alde.

Bestalde, nafar gehienak (%69) ados daude Foru Erkidegoa Espainiako autonomien baitan kokatzen duen araudiarekin. Nafarroarentzat nahi duten egoerari buruz, orain arte bezala jarraitzearen aldekoa agertu da gehiengoak (%49), baina beste %23k autonomia gehiago eskatzen du. Euskal Herri independente baten aldekoak %9 dira, eta Nafarroaren independentziaren aldekoak %2 baino ez.

Nafarren identitateari dagokionez, %44k nafarra eta espainiarra dela esan du, eta %21ek nafarra eta euskalduna. Beste %18k nafarra bakarrik dela dio. Ildo honetan, aipatzekoa da ere, nafarren %39k ez duela bere burua europartzat hartzen, eta %57k nahiko europarra sentitzen dela dioela.

Etxebizitzaren eta euskarren arloetan, herritarrei ez zaie Gobernuaren jarduna gustatu. Hala, lehenengoan %49k eta bigarrean %31k, lana «gaizki» egin dela adierazi dute.

## EEBB-ETAKO ERASOAK

%76 terrorismoaren aurkako koalizioaren alde dago, baina %63 terroristak eta ingurua erasotzearen aurka

## EKONOMI PERTSONALA

%51k egoera ekonomiko ona duela diote, %49k erdipurdikoa, eta soilik %8rentzako da txarra bere egoera

# GORBEIAKO GURUTZEAREN MENDEURRENA

## 1901-2001

### 2001. EKO URRIA

**19 AREATZA**  
Gorbeia buruzko hitzaldiak: "Gorbeia Gortzearen historia eta anekdotak" - Hizlaria: Iñaki García Uribe  
**19:30etan** Areatzako Udaletxean

**20 AREATZA**  
Jaialdi Herrikoa  
**11:00etan** Perratokiaren Inaugurazioa  
**18:00etan** Erraldoien Kalejira eta Dantzak  
**21:00etan** Euskal Erromerie

**21 AREATZA**  
Jaialdi Herrikoa  
**11:00etatik** aurrera txistularien eta Dunbots Taldearen kalejira. Eguerdian Herri Kirolak plazan

# GORBEIALDEA

www.gorbeialdea.com

Euzko Jaurlaritzak

Bizkaiko Foru Aldudia

Alava Araba

Caja Vital Kutxa

Euskadi

Bizkaia